

Herritar agurgarria,

Zaldibiako Udala “Zaldibia eraberritzen” partaidetza prozesua garatzen ari da, eraikin publikoen inguruan hausnartu, iritziak elkarbanatu eta erabakiak hartzeko. Iazko azarotik aurtengo otsailera garatu zen faseak hainbat emaitza utzi zituen: ondorioen txostena eta aurtengo erronkak.

Bi dira 2017rako jarri ziren erronka horiek:

- 1.- **Plaza eraberritzeko IDEIA-LEHIAKETA egitea.** Plazan udal eraikin berria eta aterpea behar ditugula ondorioztatu zen eta aukera ezberdinak mahai gainean izateko, arkitektoentzat lehiaketa antolatzea erabaki zen.
- 2.- **Aurrekoari lotuta, egun Kultur Etxe zaharrea ematen diren zerbitzuak lekualdatzea,** horretarako Udalak duen Artxanberriko lokala egokituz.

Udalak, bestalde, finantzaketa bideak jorratzeko konpromisoa hartu zuen. Aurtengo bi erronka hauei erantzuteko adina diru badagoela ziurtatuta, eta aurrera begira espektatiba onak izanik, beste partaidetza fase bati hasiera eman zaio.

Hori dela eta zuzentzen gara zuregana. Datorren **MAIATZAREN 26an, OSTIRALA, arratsaldeko 16:00etatik 20:30era bitartean, ATE IREKIAK** antolatu ditugu aurtengo erronka diren bi guneetan: **HERRIKO PLAZAN eta ARTXANBERRIN.**

Egun horretan eta denbora tarte horretan **gune horietara joaten bazara, gune bakoitzari dagozkion azalpenak jasoko dituzu** (erakusketa moduan eta hitzez), eta **zalantzak argitu zein iritzia emateko aukera izango duzu.**

Herri erronka hauei, herritar guztiekin batera heldu nahi diegunez, maiatzaren 26an Ate Irekietara etortzera gonbidatzen zaitugu.

***Oharra:** egun horretan etortzeko aukerarik ez baduzu eta informazioa jaso eta iritzia emateko interesa baduzu, jo lasai Udaletxera.*

Agur bero bat,



Zaldibiako bi Udal taldeetako ordezkariok